

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko martxoaren 3a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Juanjo Atxa •**

«Jendea gero eta gehiago dator pilota eskolara, batzuetan gehiegi»

## Heldu dira



• JOXE LACALLE

Inauteriak fundamentu gutiko bestak dira. Eguberriak akitzeaz batera hasi egin ziren Uitzin. Hainbat asteburutan zenbait herritan ospatu dituzte, eta orain, bi hilabete geroago, badator azken zartakoa. Nafarroako herri eta auzo anitzetan, gaurtik asteartea bitarte, zuria beltz bilakatuko da eta iluna zurituko zaigu. Orri hauetan bakan batzuk bildu ditugu. Baina gehiago badaude. Eta hobeak, norberaren inauteri jaia baita munduan den onena. Esaera zaharrak dioenari jarraitzea besterik ez dago: «Ongi pasa, guti gasta... eta bueltak amari».





## Inauteriak Nafarroan

# Bera • Inudeak artzainekin elkartu zirenekoa

**Ortzegun Gizenak ematen die hasiera inauteriei, haurren puska biltzearekin eta inude eta artzainen irteerarekin. Bihar kautereen etorrera izanen da, igandean inudeak eta artzainak aterako dira, eta astelehenean xingar-arrautza eta egun handia ospatuko dira.**

BEREZITASUN UGARI DU BERA-KO inauteriak. Bihar, esate baterako, kautereen etorrera ospatuko da. Hungariatik etorritako xingaroen antzeppen horrek ongi-etorria egiten die inauteriei. Arratsaldeko 18:00etan, Ilekuea auzotik abiatzen dira, eta Berako plaza bitarte joaten dira, hainbat

Kautereak, inudeak eta artzainak eta xingar-arrautza astelehena bitarte

kantu abestuz, konpartsan betiere. Plazan, ijitoen ezkontza irudikatzen dute, eta dantza batekin ematen zaio akabera.

Baina inauterietako ezau-garririk bitxienetakoa eta gero eta jende gehiago biltzen duena *Inudeak eta artzainak* besta da. Badira ehun urte baino gehiago besta hau egiten dela Beran. Nonbait, Donostiatik ekarritako ospakizuna da, baina egun Beran bizi den edonork oroitzen du betidanik ospatu izan dela. Artzainak, inauterien aitzakian, karrikara jaisten omen ziren, eta bertan inude edo haurtzainekin ibiltzen ziren dantzan. Hortik sortu zen *Inudeak eta artzainak* dantza.

### Sexuaren trukatzea

Garai batean, inauterietan gizonak baino ezin zuten parte hartu, eta haiek egiten zuten inudearena zein artzainare-



Bertze lekuetan ez bezala, Beran neskek artzainarena egiten dute, eta mutilek, berriz, inudearena. • GOIKO ARGAZKIA

na, gerra antzinako argazkietan antzeman daitekeen moduan. 70eko hamarkadan, bertze hainbertze ohiturarekin gertatu bezala, Beran inauteriak berreskuratu ziren, eta haiek *Inudeak eta*

*artzainak* ospakizuna. Baina orduan, eta inauteri giroa oraindik gehiago antzeman zedin, ezaugarri bitxi bat eman zitzaion: gizonak inudez ateratzen dira, eta emakumeak artzainez, alegia, sexua

trukatzen dute. Inudeak eta artzainak ateratzen diren gainerako tokietan (Donostian, Tolosan, Pasaian...) ez dira horrela ospatzen, eta horrek, umorea ekarri ez ezik, bereziak egiten ditu Berako inudeak eta artzainak. Gaur egun, gainera, kasik ehun gazte ateratzen dira parte hartzen. Dantzariekin batera konpartsa bat joaten da, inauterietako Momo erregearekin, herriko medikuarekin, aberatsarekin, erizainarekin, apaizarekin, deabruarekin eta bertzelako pertsonaiekin batera. Igande goizean izaten da emankizuna.

Astelehenean, berriz, inauteriei akabera emateko, koadrilak mozturoriturik ateratzen dira, eta, batzuk orgarekin, bertzeak taldean jantzita, baserriz baserriz ibiltzen dira puska biltzen, xingar-arrautza eskean.

→ Jon Abril

## Lesaka •

# Zaku zaharretan bildurik

Zakozarrak dira inauterietako pertsonaiarik ezagunenak

LESAKAKO ZAKOZARRAK IGANDEAN ateratzen dira karrikara, ilundu eta gero. Lehenagotik zakozar guztiak herriko pilotalekuan elkartzen dira, euren jantziak prestatzera. Horrek lan handia ematen du. Bate-tik, zakuekin jantziak egiten dira (galtza modukoa eta jaka), eta belarrez betetzen dira.

Zakozarren mugimendua mantsoa eta motela izaten da, belarrak zail egiten baitu mugitzea. Aurpegia, gainera, trapu batekin estalia izaten dute, buruan lastozko txapela eramaten dute, eta eskuetan, pi-

xontzia. Ibilbide guztian, euren pixontzia joz soinua ateratzen dute zakozarrek, eta jendea ziztatzeko. Plazan, zakozarrak jotzen dituzte, eta barrenean duten belar guztia sakabanatu egiten da.

Azken urteotan, emakumeak ere hasi dira parte hartzen zakozarretan, orain arte ez baitzieten ateratzen uzten. Orain, hala ere, normalduta dago parte-hartze hori.

Astelehenean, aldiz, bertzelako giroa sumatuko du kanpotarrak. Batetik, inauteri modernoagoa antzemanen du. Koadrilak mozturoriturik ateratzen dira goiz-goizetik, eta bandaren gibeletik ibiltzen dira goiz parte osoan, umorea nonahi paratzen. Egunak du indar gehien, arratserako malkaltzen baita inauteria.

Badu bertzelako berezitasunik ere inauteriak Lesakan.

Herriko bi puntetako gazteak (fraindarrak eta goitiarrak) puska biltzen ibiltzen dira, etxez etxe, trikitixa soinua lagun, eta baserritarrei euren dantzak eskainiz. Ibilbide aski luzea egiten dute, eta nonahi gosaltzera gelditu. Inauteriarren alderdi hori multzo ttikiagoan eta patxada handiagoz ibiltzeko modukoa izaten da.

→ Jon Abril



Igandean aterako dira zakozarrak, ilundu eta gero.

TTIPI TTAPA

ziutatea

ARITZ AGIRRE



**E**z nuke farola bihurtu nahi bizi garen egun hauetan, intimitatea pertsuasio lotsagabeak bahituta duen aste pare honetan. Aznarren bibote arkaikoa batetik, Almuniauren aurpegi biribila beste aldetik edo biak elkarren ondoan zintzilik, eta haien antzera beste guztiak. Belarritakoak bailiren jasan beharra dauka horien pisua farola gaixoak, gu bezain errugabe.

Hauteskunde jantziak mozturoritu digute hiria inauteriatan, eta koloreetako pegatina, puxika eta goxokien paisajea nagusitu zaigu oharkabeen hiri ekosisteman. Bilabesetako markesinetan Aznarren bibotea ezarrita dago emakumeen lurrin lirainaren iragarkia zegoen lekuan. Ohikerian murgilduta paratzen du iragarki jartzaile horrek politiko baten zein bestearen irudia, ezker-zentro-

## Txotxiboto

eskuina nahasiz, bakoitzaren ikur edo amets merkeei sekula erreparatu barik.

Bi hitzeko goiburua errazen eraso nekazainak dira nagusi, obretara begira diharduten agure horiek gogaituta jarraitzen duten bitartean. Han-hemenka, sinpletasuna kaleko bazter guzietatik barreiatuta: binomio eta hitz errimadunak: "Bai eta ez", "Hurrengo", "Aurrera goaz"... Etorkizunari begira deklinaturiko hitz ugari, baikorrak guztiak, eta birjina. Pozoirik gabekoak, Mundu Zoragarrian untxiak Alizari esaten zizkion horietakoak.

Eta horrela, indiferentzia giro horretan, karteletako irribarren artean igarotzen zaizkigu egunak, bestelako aztorapenik gabe, kontrolik ez duen politikeari bizkar emanez, Maya erlea bezain entzungor Flip-en gomendioen aurrean. Betiere, irteera posiblek ez dagoela jakinik. Irteerarik ez

—diot—, ezin baitu inork hauteskunde eremutik aterbetu. Ihes egin nahian aurrekoetan paso egiten zutenek jai dute egun, paso egitea aurreikusia baitute aurtengo karteletako aukeren artean. Ezin inoren esanak bete gabe gelditu.

Alferrikakoa ei da atzoko gisara jarraitzeko biharko ametsetan murgiltzea.

Eguneroko arazoei muzin eginez gero hutsalak direlako hitzaldi guztiak, monologoaren ordezkariak garatu artean, bederen. Usteak ustelak beti, botoen erreinuan. Lagun batek esan bezala, konponbiderik kausitu artio politiko guztiak sagardotegi batean ixtea litzateke irtenbide bakarra, horretarako garaia ere badelako. Eta orduan ere upel asko hustu beharko litzateke adostasunik erdietsi aurretik. Horren aldekoa izanen da nire aurtengo botoa. Txotx egingen dut M-12an.



## Inauteriak Nafarroan

## Arizkun

**Urte osoan arizkundarrek itxaroten duten unea iritsi da. Jatorri argirik gabeko Hartza berriz irtengo da karriketara. Dena dela, Arizkungo inauteetan bada besterik ikusteko.**

"HELDUTTUK, HELDUTTUK! Inautik, inautik!", lagun batek erran zuenez. Arizkundarrek urtez eta urtez, ia aldaketarik gabe, euren inauteria gorde dute. Beraizendako urteko bestarik garrantzitsuenetakoa dena ez da espektakulu bat, herriaren sentimendu bat baizik. Besoak zabalik hartzen dituzte bisitariak, baina errespetu berezia eskatzen diete, ez dute nahi Arizkungo inautea Euskal Herriko beste hainbat inaute bezala masifikatzea. Hori dela eta, publizitatearen aurka agertzen dira

# Adi ibili Hartzarekin

**Aurten ere sagar-dantza astearte goizean izanen da**

gehienetan, bestaren muina gordetzearen.

Igande goizean, herriko gazte ezkongabeak elkartu egiten dira herriko elkartean gosaltzeko eta taldeak osatzeko, etxez etxe eskean joateko. Talde bakoitzarekin akordeolari edo trikitilari bat joaten da, eta gehienetan eltzagorak ere eramaten dituzte zarata ateratzeko. Duela gutxi arte neskarik ez zen joaten etxez etxe. Egun, denen beharra dago honelako herri txikietan. Arratsalde partean, argia urritzen den heinean, herritar asko moztortu egiten da. Etxean aurkitutako edozein oihala nahikoa da aurpegia estali eta haurren atzetik lasterka abiatzeko. Eta hura da, hura, haurrek pasatzen duten beldurra! Igandea bukatzeko, afalondan dantzaldia egiten da herriko pilotalekuan.

Astelehena, inauterietako bigarren eguna, igandea bezala igarotzen da. Gazteek ez dute huts egiten eta auzoetan eta



Hartz-zainak kateaz lotu du piztitzarra, baina, kontuz, inor ez dago Hartzaren atzaparretatik libre. ● ARTXIBOA

herrian ibiltzen dira berriro eskean.

Eta iristen da egunik handiena, ikusmira handiena sortzen duena: sagar-dantzaren eguna, asteartea. Garai batean, sagar-dantza astearte arratsaldean dantzatzen zuten. Orain, herritar batek hala

eskatuta, goizera aldatu da. Dantza hori Danbolin Nagusiek dantzatzen dute. Atorra eta galtza zurien gainean koloreetako paxak eta zapiak eramaten dituzte. Buruan puntan bukatzen den zapel luzea daramate, koloreetako zintaz apainduta.

## Heldu da Hartza

Eguerdia aldera mugimendua sumatzen da herriko karriketan. Herritar asko, haurrak izan ezik, moztortzera doaz. Bitartean, Txuputo karrikako etxe batean, Hartza jantzten hasi dira, ardi larruekin. Ez da hautaketa berezirik egiten Hartzaz jantziko den mutila zein den jakiteko. Beraiek dioten bezala, "gehienei tokatuko zaie noiz edo noiz". Askotan, Hartzak bere papera hobeki bete dezan, bermut batekin laguntzen diote...

Ez dago argi zein den Hartzaren jatorria. Aspaldiko kontu baten arabera, herrian agertutako hartz bat uxatzeko jantzi ziren horrela arizkundarrak. Hartz-zainak kate batez lotzen du Hartza, eta musikariek diotenean, hasiera ematen zaio desfileari. Moztortu euren korrikaldiak egiten dituzte haurren atzetik. Inor ez dago Hartzaren erasoetatik libre, Hartza animalia baita eta askotan ihes egiten du. Desfilearen bukaera plaza izaten da, Zortzikoa dantzarekin. Oraindik gaueko dantzaldia geldituko zaie arizkundarrei azken indarrak amaitzeko.

→ Rakel Goñi

## Lizarra

**Mozorroak, jantzi zaharrak, maskarak eta kolorezko margoak berriz ere aterako ditugu ganbarako kutxa zaharretik. Gaur iluntzean hasi eta hilaren 4, 5 eta 7an inauteriak ospatuko baitira Lizarran.**

GAUR, ILUNTZEKO ZORTZIETAN, San Martin plazatik abiatuko da kalejira, hainbat herritako moztortz osatua. Gaueko hamarretan, aldiz, herri afaria egiten dute. Hauxe da Lizarrako inauterien hasiera. Biharkoa egun handia izanen da. Abestuz, zirikatzaileak goiz-goizetik izanen ditugu gure artean.

Aurten ere, Lizarra Ikastolak prestatu du larunbat goizeko kalejira. Desfilean Nafarroako hainbat herritako inauteriak irudikatzen dira.

# Uri, uri, ura Aldabika Aldabika

**Gaurtik aitzina inauteri jaiak ospatuko dira Ega ibaiko hirian**

Bertan izanen dira Lantzeko Miel Otxin, Ziripot, Zaldiko eta Txatxoak, Unanuako Mamuxarroak, Lesakako Zukuzarrak, Altsasuko Momotxorroak, Erriberriko Larruki-ruak, eta noski, Lizarrako Zirikatzaileak, Palokiak eta Aldabika.

*Al higuico, al higuico, al que lo coja palico.* Horixe abesten dute zirikatzaileak. Aurpegia beltzez margotuta, eskuetan makila luzea eramaten dute, eta makila honi lotuta, piku bat. Piku hori jateko asmoz hurbiltzen dena errautsez estaliko dute. Hortik dator kie zirikatzaile fama. Hauekin batera, Lizarrako palokiak joaten dira, musika doinuekin. Uri, uri, ura, Aldabika, Aldabika; uri, uri, ira, Lizarrako lapurra. Horrela abesten dute Palokiak.

## Aldabika, lapurra

Kondairak dioenez, Aldabika, Lizarrako inauterietako per-

tsonaia garrantzitsua, Abar-tuzan jaio zen, eta gazte-gaztetik lapurtzeko zaletasuna zuen. Lizarraldeko biztanleak izuturik zeuden, eta, hura harapatzeko, basoan zehar zenbait irteera egin zuten nekazari eta ehiztariek. Halako egun batean harapatu egin zuten, eta, pozaren pozez, ospatzeko, jendea kantari eta dantzari aritu zen gau osoan, eta horrela hasi ziren inauteriak. Aldabika Lizarrako herrian erre zuten, eta geroztik, inauterien ospakizunetan, haren itxurako panpina erretzen da.

Inauteri jaiak arratsaldean jarraituko dute, umeek zenbait jantzi aukeratzen baitituzte kalera irteteko. Igandean umeentzako jolasak izanen dira, herriko plazan, eta azkenik, asteartean, La Botako ki-deek jai txiki bat egingo dute beren egoitzan. Han ere ere egiten dute Aldabika.

→ Kristina Berasain



Palokiak dantzari Lizarrako karriketan barrena. ● KRISTINA BERASAIN



## Inauteriak Nafarroan

## Iruñea • Auzo bakoitzak berea

Alde Zaharreko inauteriak, urteen poderioz, finkatzen hasi dira

Iruñeko auzoek euren inauteriak ospatuko dituzte asteburu honetan. Haien artean, Alde Zaharrekoek hartu dute indar handiena. Zaharrenak, berriz, Donibaneok dira.

**D**UELA HAMABI BAT URTE hasi ziren Iruñeko Alde Zaharreko inauteriak ospatzen. Alde Zaharreko kultur koordinadora batek antolatzen ditu, eta bertako kidea dugu Toni Iragi.

Inauteri guziek kontatzen dute istorioen bat. Alde Zaharreko inauteriek, konparazio baterako, Maria Trapo eta Mari Trapurena kontatzen dute. «Istoria asmatua da, baina badu oinarriak auzoko historian», erran du Iragi. «Erdi Aroan Iruñeko burgoak banandurik zeuden eta elkarri mokoka. Nabarriak burgoan baskoiak bizi ziren, nafarrak. Eta San Zerninen frankoak zeuden. Hainbat gatazka izan ziren euren artean eta, behin, Nabarria suntsitu zuten frankoek. Horretan oinarrituta bururatu zitzaizgun inauterien istorioa. Maria Trapo frankoa da, gaiztoa. Nabarriari erasotzen ziona.

Eta Mari Trapu baskoia da. Nabarriakoa. Erasoen istorio horretan ongia eta gaizkia irudikatzen dira». Maria Trapo Nabarriako iturrian paratzen dute inauterien hasieran, eta azken egunean su ematen diote, «jendaila» besterik ez diren hainbat pertsonaiekin batera.

Egitarrak zabala dute Alde Zaharreko inauteriek. Ekitaldi hauek ezin gal ditzake errandazaleak: asteleheneko herri zantantzarrada, Maria Traporen erretzea, eta, inauteriak bukatzeko, Jarautako sardina jatea. Nobedadeen artean, aipatzekoa da, batetik, Muthiko Alaiak taldeak antzeztuko duen Kabalkada. Bestetik, larunbatean eginen duten Nazioarteko Merkataritza Erakundearen fartsa oso barregarria izanen omen da.

Iragi aitortu duenez, hasieran euren helburua zen jende anitz erakartzea, denak

mozorroturik etortzea. «Duela pare bat urte asmo hori aldatu genuen, eta auzoko inauteritzat hartu genituen. Inauteri giroa dago zenbait tabernatan eta, batez ere, auzo elkartean». Iragirendako, giro horretan auzoko tikiak dira funtsezko protagonistak. «Besta handia da eurendako», adierazi du. «Anitzetan erratan da Iruñeko inauteriak Gabon zaharrean direla. Gabon zaharra gazteendako besta proposa da, baina ez haurrendako. Gure inauterietan gazte guti mozerrotzen da. Baina giroa Gabon zaharretakoa baino hobea da».

## Zaharrenak, Donibaneok

Duela pare bat aste ospatu ziren Donibaneko inauteriak. Antza, duela hogeit bat urte hasi ziren auzo horretan inauteriak ospatzen. Hortaz, horiek dira zaharrenak. Asier Biurrun duela bost urte sartu zen inauterien antolakuntzan. Hainbat gorabeheraren ostean, data finkatzea lortu dute: otsaileko bigarren asteburua. Urtero mozerroak egiten laguntzeko lantegia anto-



## Alde Zaharreko inauterien egutia

**Ostirala**  
10:00: Maria Trapo Nabarriako iturrian paratu, pregon eta Mari Trapuren istorioa antzeztuko dute.  
20:30: Kalejira eta poteo euskalduna.  
22:30: Sagardo besta gaztearen. Eraman ogia eta haragimakia.  
01:00: Jarautak. Larain dantza Jarautan.

**Larunbata**  
11:00: Haurrentzako txokolatada Nabarria plazan.  
11:30: Kalejira txikia plazatik.  
18:30: Komedia karrikatik Kabalkada aterako da.  
19:00: Muthiko Alaiak taldeak Kabalkada antzeztuko duen plazan.  
19:30: Inauterietako fartsa: «Muthiko batzarra, Seateko... Iruñea». Nabarria plazan.

00:30: Mozorro dantzaldia auzo elkartean.  
02:00: Tramankulu xelebreen enkantea auzo elkartean.

**Igandea**  
12:00: Ipuin kontalaria Zabaldin.  
13:30: Herri bermutada, Moniton tabernatik hasita.  
17:30: Herri dantzaldia Jarautan.

**Astelehena**  
11:00: Puska biltze titkia, San Frantzisko plazatik.  
17:00: Askaria San Frantziskon goizean bildurikoak.  
19:00: Herri zantantzarrada erraldoia, San Zernineko abiatuta.  
20:00: Maria Trapo eta desiragaitzak diren gauzen erakustak Nabarria plazan.  
21:00: Herri sardina Pellejeriako txokoa.

bera», dio Biurrunek. «Guk kalejira izena jarri genion desfilarari, kartelean zerbitatu behar genuelako. Baina desfilea berez nahiko anarkikoa zen».

→ Asier Azpilikueta

## Herri herri

## ALTSASU

Igandean, 19:30etatik aurrera, umeen mozerro dantza eta momotxorren dantza tikiak eginen dute. Asteartean, 16:00etan, puska biltzea hasiko da. 18:00etan, herri askaria izanen da udaletxe aurrean; eta 19:30etan, Zelanditik abiatuko dira kalejira Momotxorroak. Juanfranposoak, Maskarritak eta Sorginak. Gero Akelarrea egiten dute. Foruen plazan. Isunak jarri ditzakien sakandarrak laguntzearen, taloak salduko dituzte bertan.

## BARAÑAIN

Inauterietako kalejira gaur aterako da, arratsaldeko zortzietan. Haizea elkartetik. Gaztainondo plazatik eta Erdiko hiribidetik pasatuko da. Azkenik, Udaletxe plazan, Miel Otxin erreko dute. Bihar, berriz, Jacobo Licras-en exekuzioa eta erreketak egiten dute. Kalejira 20:00etan abiatuko da Alde

Zaharrean, eta Udaletxe plazan bukatuko. Beste aldetik, Alaiak ikastetxean asteartea arte ikus daiteke inauterietako hainbat pertsonaien erakusketa.

## BERRIOZAR

Gaur, batez ere haurrek izanen dute inauterietz gozatzeko parada, maskara desfilarrekin, batetik, eta haientzat propio antolatutako jaialdiarekin, bestetik. Bihar, berriz, egun handia ospatuko dute Berrioarren. Txolin maskarada 18:30etan abiatuko da inauterien egoitzatik. Itxura denez, karlistadekin ikustekoa duen pertsonaia da Txolin. Gero dantza izanen da, eta herri afaria egiten dute 22:30etan. Inauteriak asteartean amaituko dira, pusken biltzearekin.

## BURLATA

Igandean, Martingalaren lantegia egiten

dute Foruen karrikako 2ko lokalean. Burlatako inauterien historia ezagutu, Martingalaren dantza ikasi eta bere mozerroa egin nahi duenak haraino bildu beharko du 17:00etatik 20:00etara: Bukaera, txokolatada izanen da. Martingalaren kalejira astelehenean aterako da Jehendabiziko, 19:30etan, Udaletxe plazatik. Asteartean, ordu berean eta leku beretik aterako da. Larraimen plazara heldu eta Lukas Aierbe epaitu eta exekutatu dute.

## DONEZTEBE

Inauteriak atzo hasi ziren, eta igandea bitarte iraunen dute. Gaur neska-mutikoen desfilea egiten da, eta biharkoa izanen da egun handia, arratsaldeko karrozen eta mozerroen desfilarrekin. Kanpotik etorritako jende kopururik handiena ere bihar izanen da. Puska biltzea ere gaur egiten dute, bai helduek bai haurrek, eta etxex etxe ibili-


ko dira eskean. Gaur Santamariakalduko dute, bihar Arozenan, 12an, gero desfilara golz joateko, eta igandean, jubilatuen egoitzan.

## ELIZONDO

Igandean, goizez eta arratsaldean, kaleak alaituko ditu. Gero, 20:00etik 22:00etara eta 00:00etatik 04:00etara, dantzaldia izanen da Gorrarendiako arekin. Danborrada berreskuratu dute urte baterako utzi dute. Haurrek astelehenean izanen da, 17:00etan, dantzaldia izanen dute. 12:30etan, dantzaldia izanen dute.

## ERRATZU

Igandean, Danbolin Nagusiek herria emanen diote, 10:00etan hasitakoan eta arratsaldean eskean ibiltzeko. Herriko etxetan, eta gauean dantza



## Lantz • Konfesatu gabe sutara

Heldu den asteartean erreko dute Miel-Otxin lapurra

**E**GUN LANTZEKO INAUTERIARIK antzespen kutsua duten bakarrak dira. Garai batean, Jose M<sup>a</sup> Iribarrenek kontatzen zuenez, Miel-Otxin hiltzera eramaten zutelarik, bi gazte emakumez jantzi ita joaten ziren atzetik. Gazte horiek arrunt serio zihozten eta txatxo guztiek errespetatzen zituzten. Erraldoiaren senideak omen ziren, eta plazara ailegatzean negar zotinka hasten ziren. Konfesatzeko aukera ere ematen zioten. Emakumeek pasioa irakurtzen zioten eta txatxoek ere negar egiten zuten.

Aipatutako guztia, ordea, aspaldi desagertu zen. Kondairari dagokionez, badago bertsio bat baino gehiago, baina aipatutako lantzar zaharrak ez ditu ezagutzen. Inigo Oiategi gazteak, ordea, entzunak ditu batzuk. Inigo kontatu duenez, Miel-Otxinek horrelako izena hartu du, behin, mila otxin (otxena) ebatsi zituelako. Lantzo jendea ez zen Miel-Otxin harraipatzen ausartzen, oso handia zelako. Horregatik, herriko indartsuenek (ziripoteak) eusten zioten bitartean, herrikoek (txatxoek) lotu egin zuten.

Herriko helduek ongi gogoraten dute gaztetan burla moduan erabiltzen zuten bertsioa:

*Miel otxin badauzkit gaztainpe batian. Beste hainbeste uztera banoaie instantian.*

Inigori ez zaio axola orain hainbeste jende joatea, baina astelehena da berak nahiago duen eguna, giroa oso herrikoa baita. «Etxex etxeko poteoa da gehien gustatzen zaidana, urtean behin elkartzen zaren herriko jendearekin egoteko aukera duzulako». Bazkaldu ondoren abiatzen

dira etxex etxe patxarana, gazta-zaharra eta antzekoak hartzera. Herriko gazteak besterik ez dira joaten. Beraz, giro hori ezagutzeko Lantzoa izan behar da.

## Besta ezagutzeko aukera

Dena den, kanpoko jendeak ere inauterian murgiltzeko aukera izanen du. Larunbatean bertan giro polita sortzen da afalostean. Herriko ostatuan musika talde bat ariko da goizeko ordu txikiak arte.

Parranda egiteko adinarik ez dutenek igandean dute hitzordua. Arratsaldeko ordu batean konpartsa txikia aterako da. Zazpiak inguruan bigarren kalejira izanen da. Lantzeko txikienean inauteriko pertsonaia guztiei bizitza emanen diete.

Astelehenean helduagoez hartuko dute txanda. Egurdian Miel-Otxin erraldoia —hogeita hamar kilo inguru pisatzen du— aterako dute kalera. Txatxoak lasterka eta garrasika ibiliko dira haien erratzekin eta jantzi koloredunekin. Euren eginbeharra Ziripoti Zaldikoarengandik babestea da. Ferratzaileak ere bertan izanen dira Zaldikoari ferrak aldatzeko.

Asteartean bilduko da jende gehiena. Kalejira egurdiko ordu bietan aterako da. 19:00etan Miel-Otxinen azkeneko uneak izanen dira. Kalejira bukatu eta herriko mutil bat zain izanen da plazan eskopetaz lapurrari hiru tiro botatzeko. Jarraian, txatxoek Miel-Otxin zatitu eta su emanen diote. Sua ardatza delarik, zortziko dantzak dute eta horrela akituko dira lapurraren maltzurkeriak.

→ Txari Eleta



Xabier Larraururi

## Eros

Xaxa altan dago. Nire katua bai. Katu emea. Hementxe dago bere buruarekin nire zangoen kontra eginez «marramiaoooo»-ka, etengabe, aritzen den bitartean. Altxatu egiten naiz eta sukaldaria noa. Eta Xaxa nire atzetik dator, bizkarraldetik etortzen zaizkit bere orroak, eta txorizoa eta ogia hartzen ditudanean Xaxa ailegatu, eta nire zangoei buelta ematen die, «miaooooorrrr», eta berriz ere bere buruarekin zangoen kontra egiten dit, ea kasurik egiten diotan. Kasurik edo beste gauza bat. Eta ez dago ihes egiterik. Etxeak mugatzen gaitu, baina horixe da muga bakarra. Komunean edo hemen, ordenagailu aurrean nagoela, Xaxa nire atzetik beti. Batzuetan atekak ixten ditut. Orduan Xaxa-k atearen bestaldetik deitzen nau ea txortan egiten dugun. Eta nik bere hizkuntza ez dut menderatzen. Katueraz ez dakit. Ezin erantzun beraz. Nire isiltasunak bere itxaropena handitzen duela uste dut. «Ezet esan arte saia gaitzen», edo horrelako zer edo zer pentsatuko du Xaxa-k. Gero ekologista batzuk etorriko zaizkit Naturaren perfekzioaz esaka. Zein ongi lotuta dauden gauzak eta beste. Ugalketa bideratzeko senaz. Zeina guztiz inteligentea omen den. Egin dieaio gun kasu senari. Baietz. Miao. Etxean bizitzeko ari naizen katuen beroarengatik hain zuten ere, otsailari katuhile esaten diotela entzun nuen behin. Otsailaren 14an, gainera, Maitaleen eguna ospatzen dute ElCortelnglesen. Egun horretan bertan, eta hau ez da poesia merkea egiteagatik, egun horretan bertan, diot, lurretik bidalitako NEAR izeneko, satelite artifizialak Maitasunaren Jainkoaren aurpegia argazki bat ateratzeko. Ezagutzeke genuen Maitasunaren aurpegia eta azkenean NASAKo webgunean plazaratu dute: Patata potolo baten itxura du. Hantxe ikusi dut nik argazkia. Eta azpian «EROS asteroidea». Badakizue NEAR espaziontzia asteroideari atxikia dabilzala dagoeneko, bere satelite bihurtu dela. EROSen inguruan bueltak dabilela asteroidea aztertzen, argazki gehiago ateratzen. Agian, misioari amaiera emateko, NEAR satelitea patataren azalera jaitziko dute. Asteroidearen sentipenak aski ongi uler-tu ditzaket. Sateliteak buruarekin zangoen kontra egingo dio orduan. Pi-pi-pi etengabe batekin harremanak izateko gonbita eginez. ●



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Piarres Ibarrart zapatari bertsoegilea

Bai plazan eta bai paperean eginiko lanarengatik, bertsoegile famatua izan zen Ibarrart, alabaina, eta Mendiguren-lzagirre bikoteak esandakoari jarraikiz, «ez da, zoritxarrez, merezi lukeen bezain ezaguna gure artean, haren poesiaren kalitatea kontuan izanik».



Petiri edo Piarres Ibarrart Jatsuko lthuraldian jaio zen, 1838ko otsailaren 13an. Ama ezkongabea izanik, abize-na amarengandik jaso zuen, aita zenaren hatzik ere ezagutzen ez delarik. Zazpi urteko soldadugo luzea Montelimar hirian egin ostean etxera itzuli eta zapatari jarri zen. 1867ko azaroaren 19an Marianne Darré lehengusinarekin ezkondu zen, alabaina eta horretarako baimena eskatu ez zuenez hainbat urte iragan behar izan ziren egoera guztiz normaldu zen arte, elizaren barruan behinik behin. Gazte-gaztetandik jardun zuen Bettirik bertsolari, etxekoen aitzinean lehenbizi eta auzokontzako gero, bai plazetako oholzteetan bai toberamunstra, galarrotsa edota gisa bereko ekitaldietan. Halako batean eta Baigorriko gazteriak deituta, bertan egin zen tobera batean aritu zen koblarik; zelan ezkutuki zebilen Barnetxe erretoreak entzun eta Ibarrarten lanarekin arras gustaturik, elizako koruko kantari, hau da, txantre moduan Baigorri etortzeko luzatu zion konbitea, Ibarrartek deblauki onartu zuena. Baigorri berrogeita lau urte eman ostean, Baionan zuen alabarengana joan zitzaigun, eta hantxe urte bi-edo emanda 1917ko maiatzaren 5ean zendu zen. Behin Baigorri eginez gero Ibarrartek ez zuen plazetan harzara kantatu Barnetxe apai-zak hala eskaturik, eta Etxahun eta Otsalde bezalako bertsolari ospetsuekin dematu zen bertsoegile herrikoia betiko isildu zitzaigun, geroztik bertsoak paperean pausatzen zituen olérkaria sortu zelarik.

Ibarrartek olerkiak aurkezteko berebiziko aukera hauta topatu zuen Abbadiak antolatu lore jokoetan. Lehenbizi bertsoak kantatzeko biltoki ezin hobea suertatu zitzaion, eta behin baino gehiagotan saritu zioten bere lan ona: 1869an Saran kantatu zuen Maria Louisa Ossorio bertsolaritsa azkaindarren aurka eta 1871n Sarako

Etxetorekin aritu zen. Ostera, idazle moduan aurkeztu zuen lehenbiziko lana 1869ko *Kantutak Larrungo mendiari* dugu. Hurrengo urtean berriz ere Saran eginiko festetan aurkeztu zuen bere olerki bat; urte hartan, orde, epaimahaikoek ez zuten irabazlerik iragarri, eta Martin Gilbeau medikuak parte hartu zuten olerkariak haien idazkiak egunkarietara igortzeko eskakizunari men eginez, Ibarrartek bere *Gerlako presunier bat* *Le Courier de Bayonne* eta *L'impartial de bayonne* egunerokoetan agertarazi zuen: «Eskal herritto bat da nere sorlekhu / Gerletara xortetik izan niz deithua / Prussiano etxaiez han preso hartua / Nahi duten lekhuza hetaz gidatua / Sei hilabete osoz heien menekua...». 1878ko festetan *Xinaurria* eta *xoria* aurkeztu zuen, eta sarizaturik gertatu ez zenez, 1879an Donostian eginiko festetan arraurkeztu zuen, ohorezko aipamena jaso eta Manterolak bere kantutegian argitara eman zuen. Urte berean, Elizondon eginiko lore jokoetan ohorezko aipamena jaso zuen Agustin Etxeberri saratarrarekin batera.

Ibarrartek ez zuen saririk irabazi 1882ra arte; urte hartan Sarako lore jokoetan bere *Ik-hazkina mendian* saritu zioten Larrondoberriren *Alegia* olerkiarekin batera. 1884ko lehian *Uso saretan hatze-mana* aurkeztu zuen: «Amar eman hitza nuelakotz hautsi / Eskual Herrian nintzen saretara jautsi / Handik hegaldatzea ezin ardietsi / Ihiztari zaharrak nau kaiolan hetsi...». Etxarri-Aranatzen ospatu beharreko baina azken unean Sarara aldatu ziren 1885ekoetan, berriz, *Laborari etxeko*

alaba, eta Maulen 1890eko irailaren 21 eta 22an egin ziren festetan *Bildots ait'amez gabetua*. Donibane-Lohitzunen 1892an ospaturikoetan bigarren saria eskuratu zuen *Itsua eta sastrea* lanarekin: «Eskualdun bat zen itsu eta bertsolari / Atez ate zabilan iloba gidari / Soineko eta diru, janari eta edari / Nasaiki biltzen zuten bertsu eman sari...». Uztaritzen 1893ko ospakizunetan lehenbiziko saria eman zioten bere *Artzaintsa gazte baten bozkarioak* lanarengatik: «Zelhaierarik ikusten duzu gure etxea mendian / Eta gorago etxola hura harroka baten aldean / Mendi kaskoan andre gazte bat arthaldearen erdian / Ni nago hemen ardien zaintzen nere kilau gerrian / Egon ditezen ene aitamak bakotxa bere lanean...». Hazparden 1894an eginikoetan ohorezko aipamena jaso zuen *Mutil zahar bat bere mahastian* olerkiak, eta urte berean Donibane-Lohitzunen eginikoetan bigarren ohorezko aipamena jaso zuen bere *Eskuara, eskualdunak eta heyen loriak* lanarengatik: «Gizon eskualdun zahar ohoragarriak / Biloa xuri bezain kolore gorriak / Hitz ederrak mihian arrai arpegiak / Agur derautzuegu oi gure loriak...». Kanbon 1896ko abuztuan ospatu lore jokoetan lehenbiziko sariaren 50 libera eman zitzioten *Aitaxi baten solasak bere ilobaso xumeari* lanari esker: «Ikusten dugu gizon bat aitasotu denean / Etxaintzinean jarririk alki baten gainean / Bere haurrak ezarririk bizi molde onean / Ilobaso xume bati dagola solasean». Ezpeletan 1895eko irailaren

24an eginikoetan hirugarren saria eskuratu zuen *Aita zuurra eta irur semeak* lanarekin. Ibarrarten heimezortzi koblak Piarres Lafittek eman zituen argitara 1948ko Herria aldizkarian.



etorri ahalean

Patziku Perurena



## Hungariar guretartuez

Motzean esateko, ostrogodoen ondotik, IX. mendean iritsi ziren sortalde-tik magiar gerlariak, gero Hungaria izendatuko zen lurralde-*ra*. Erregea kristautu eta, X. mendeaz geroztik sendotu zuten hungariarrek beren erresuma, gerlak saihestu, legeak ezarri eta XIV-XV mendeetan beren menpeko merkataritza izugarri zabaldu eta indartuz. Hala, European moda bihurtu zen Hungriako erregeen leinuko izatea, eta Fraitzikoko eta Portugalgo gorteetako genealogistek Hungarian bilatzen zituzten beren erroak.

Garai eta giro horretan, Hungriako Erresuma zaharrak izandako eraginaren aztarnak sinalatzen ditu J. Sarrionandiak *Marginalia* izeneko liburuan, euskal eta erdal literaturako zirta batzuk aipatuz: «Atharratzeko jaoregian bi zitroü doratü. / Hongriako erregek batto du galthatü» edo García Lorcaren «soñando viejas luces de Hungria» bezalakoak.

Bistan da hor, urrutiko noblezia batekiko jaiera, baina hori bezain interesgarria ez ote da hungariar soilak geroztik guregan izandako eragina. Euskal Herriko leku askotan hungaro deitu izan zaie ijitoi, eta bati baino gehiagori aditua nago, ijito beltzak (hegoaldeko sartuak) baino ugariago direla gure artean ijito kaskagorriak (iparraldeko sartuak) eta bertakotuak, ijito euskaldunak kasta nobleago batekoak direla adierazi nahiz edo.

Baliteke, baina, Leitzañ bertan askori aditua nago, «jitoak bezelaxe zien hunjaroak, eta Albergeko hortan uzten zittuen beren karroak»; esaiara despektibo moduan ere bai «hau demono hunjaroa» eta gisakoak.

Beltz edo gorri, (honetan, kolore morbosoa izaki biak), holako jendeak (jito, hunjaro, zingaro, buhame, agote) eragin erabatekoa izan du gure gizar-

tean, bai merkataritza eta eskulan orotan (zurgin, harotz, zamargin, zapaagin...) bai festagiroko ikuskizun guzietan (dantza, musika, koplagintza, fartsa, ihauteri...) bai sendakuntza eta sineste guzietako sorginkeria orotan. Egungo jende ofizialak (jator eta normal ustekoak) besterik uste badu ere, gisa orotako morbo marginaletik bazkatu izan baita aldi eta alde orotako historia.

Baina natorren harira. Esate bateko, longaina, longarina izeneko janzkiak, «(la) hongarina» (hungariarra) esan nahi du sortzez, berekin batera gure artera ekarri eta bertakotzeraino ugaltu baitzuten hungariarrek. Ehunka lakatzez egindako janzki iluna zen, euskaraz «kapusai» deitu gisakoa, eta bestetan beste, Erronkari aldean, alkate eta erregidoreen ohiko jantzi izateraino errotu zena.

Hala dio Ignacio Baleztenak, Iruñan 1695eko dantza eta musika kontutaz ari dela: «Ignacio Migueltoarena, mancebo mercader, cobró 596 reales y tres cuartillos por los recados que dio para vestidos de los 16 danzantes y dos gaiteros, y al sastre Juan Bernardo de Hugarte se le pagaron 90 reales por la confeccion de 18 hongarinas para los susodichos».

Horra garai bateko kauteren festa ere oraino bizirik, beren aspaldiko merkatu eta ofizioen lekuko, Iruñean, Tuteran, Estellan, edo Donostian «venimos de Hungria» gogoratuz kantari kalerik kale zalapartan.

Honatz beste hunjaro sonatua: «El Diablo Cojuelo, alegre y de bullicioso ingenio, inventor de la zarabanda, la chacona, el bullicucuz, el guirigay, el avilipendi y otros bailes mas o menos pecaminosos».

Goizuetako Longarincho (gero Artantxu) borda izena, Areson hagitz ugaria zen Chacon deitura, eta beste datozkit burura, baina, burutazio guziak ongi lotzeko lekua eskas.

Ziria

• Motxorrosolo •

## Atzerapausoa

BAGENUEN ZAILTASUNAREN BERRI. ATZERAPAUOAK TEO-ria mailan aurreikusten dira, eman behar izateak sortzen duen etsipena, aldiz, esperientzien alorrekoa da. Aztoramendutik geldotasunera doan tartea tximistaren abiaduran gauzatzen da. Azken hori baita barneko gure minbizia.



# Juanjo Atxa

Txaruta pilota elkarteko irakaslea

## «Jendea gero eta gehiago dator pilota eskolara, batzuetan gehiegi»

**Urteak daramatza Euskal Herriko pilotaleku guztietara bere ikasleak eramaten. Goñi II.a, Otxandorena edo Atxa pilotari profesionalek berarekin ikasi dute esku pilotan aritzeko behar den guztia.**

**P** ILOTALEKUAK DIRA BERE bigarren etxea. Itxuraz seriotasun handiko gizon honek Baztanen pilotak eza-gutu izan duen arrakastarik handiena lortu du.

### ■ Nondik datorkizu pilotarako zaletasuna?

Txikitan hori zen Almandozen egiten genuen kirol bakarra, ez baikenen ateratzen orain bezala. Egun, urtean hoge partidu joka ditzake haur batek. Garai hartan, gehienez bostetara joaten ginen.

### ■ Nola bihurtzen da zale bat irakasle?

Baztan Ikastolan lana lortu nuenean, Joxe Urrozek eramaten zuen pilotaren gai guztia Baztanen. Hark ikusi zuen pilota izugarri gustatzen zitzaidala, eta hasi zen dena nire eskutetan uzten. 14 pilotarekin hasi ginen Baztango Pilota Eskolan. Garai hartan Malerrekako Pilota Eskolarekin harreman handia genuen: haiek etortzen ziren gurekin jokatzera, gu ere hara joaten ginen. Baina konturatu ginen txapelketetara joan nahi bagenuen, Euskal Herrikora edo Nafarroakora, elkartzea beharrezkoa zela. Hasieran ez genekien zein izen jarri; norbaitek aipatu zuen Baztan eta Malerreka artean Txaruta izeneko mendi bat zegoela eta, azkenean, elkarrekin izen hori hartu zuen.

### ■ Zein izan da zure idoloa?

Julian Retegi, dudarik gabe. Beti iruditu zait pilotari onena dela. Hala ere, uste dut uzteko garaia iritsi zaiola, adinak ez baitu barkatzen eta gazteei ere bidea utzi behar zaie. Nire adin berekoa da, eta behin, Almandozko bestetan,

berarekin jokatu nuen, baita galdu ere. Nire ikasleek oraindik lan handia egin behar dute, baina, nahi izanez gero, batzuk Retegiren mailara irits daitezke.

### ■ Zer esan nahi du zuretzat zure ikasle izandakoak orain profesional mailan aritzea?

Ni, eta bai Txaruta ere, oso gustura sentitzen gara gurekin ikasitako sei pilotari maila nagusira iritsi direla ikusiz. Harro sentitzen gara talde bezala. Pilota eskola gutxi esan dezakete hain denbora gutxitan sei pilotari atera dituztela. Ez daukagu metodo berezirik, hoge urte hauetan egin duguna ordu anitz sartzea izan da. Alor honetan pilota erabat atzeratua dago; hau da, ia ez dago estudiantorik, teknikak, aerodinamika eta abar aztertu dituenik.

### ■ Zenbat haur daude gaur egun Txaruta Pilota Elkartean?

Baztan eta Malerrekako 250 haur ari dira gurekin pilotan ikasten. Inoiz baino haur gehiago ditugu. Orain arte ez genuen ezer kobratzen. Aurtengo, urteko 5.000 pezetako kuota bat jarri dugu, batez ere txapelketak antolatzeke eta lau monitoreei ordaintzeko, eta erantzuna ezin hobea izan da. Ikasleentzat ez da gastu handia eta, aldiz, guretzat laguntza izugarria da. Jendea gero eta gehiago dator pilota eskolara, batzuetan gehiegi... Asteburuetan hainbat kilometro egiten ditut haurrekin txapelketetara joateko. Zortzi urtetik aurrerako haurrak ditut, eta hainbat mailatan parte hartzen dute.

### s o s l a i a

Juanjo Atxa Almandozen sortu zen, duela 46 urte. Betidanik pilotan aritua da, eta orain dela 20 urte Baztango Pilota eskolaz arduratu zen, gerora Txaruta Pilota Elkartea izanen zenaz. Egun, Baztan eta Malerrekako 250 bat haur dabilza Txarutan. Atxarekin 40 aritzen dira asteartetan eta 50 ostegunetan.

Baztango Ikastolan, 4. mailako irakaslea da. Irakasgai gehienak ematen ditu, ingelesa eta musika izan ezik. Beste urte batzuetan 3. mailakoez ere arduratu da. Familiarekin egotea maite duen arren, pilotak ordu asko kentzen dizkio, kirolari dion zaletasuna oso handia baita.

Etorkizunean pilotak Euskal Herriko mugak gainditu beharko dituela uste du. Haren aburuz, pilota munduko ikerketak bultzatzea ezinbestekoa da, kirolaren teknikak hobetzeko. Dena dela, Atxa harro dago oso, metodorik gabe ere Txarutako sei pilotarik maila gorenera iristea erdietsi dutelako.



● ONDIKOL

Txikiagoak ere hartuko nituzke, baina ez daukat denborarik. Astearteko taldean 40 haur daude eta ostegunekoan 50. Ezinezkoa litzaidake haur gehiagorekin denei ongi atenditzea.

*«Julian Retegi nire adin berekoa da. Behin, Almandozko bestetan, berarekin jokatu nuen, baita galdu ere. Nire ikasleek oraindik lan handia egin behar dute, baina, nahi izanez gero, batzuk Retegiren mailara irits daitezke»*

### ■ Nola egiten duzu, 20 urte eta gero, gogo berdinarekin irakasten jarraitzeko?

Afizio handia daukat -batzuk esaten didate ea nola ez nagoen erreta-. Pilota eskola proiektu bat izatetik errealtate bihurtu da denborare-

kin, eta errealtate honek jarraitza bultzatzen nau. Pilotak disgustu handiak eman dizkit, baina gauza handiak askoz gehiago dira. Alde txarrik baditu, nola ez. Familiarekin egoteko denbora asko

kentzen dizu. Halere, zaletasunak dena gainditzen du.

### ■ Nola esaten zaio guraso bati bere haurrak ez duela pilotarako balio?

Guraso bakar batzuk izan ezik, gehienek badaukite haurrak balio duen ala ez. Guk

ezin diogu esan haur bati txarra bada ez etortzeko. Gure helburua adin hauetan ez da haurraren kalitatearen arabera sailkatzea, baizik eta denek ongi pasatzea kirol bat egiten duten bitartean. 13-14 urtekin, haurrak konturatzen dira pilota beren kirola den ala ez. Haur asko, partiduak galdua ere, desiotan daude ikasten jarraitzeko. Zaletasunak irabazten du kasu honetan ere. Arazoa da, kirol guztietan bezala, haurra bere lagunak etortzen direlako hasten denean. Niri gertatu zait adin bereko sei edo zazpi mutiletakoa bat futbolekin has-tea eta talde osoa bere atzetik joatea. Haurra pilotan aritzea da garrantzitsua, bortxatu gabe; zaletasunarengatik aritu behar du.

→ Rakel Goñi





## Nafar Kronika

Aitor Arozena

### Eskaleak NUPeko kortijoan

**N**afarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzen zuen ikasle talde batek ate aitzinean, pankarta hedatuta eta ateari kateatuta. Ate hartatik, hain xuxen, Fernando Buesari eta bere bizkartzainari omenaldia eta minutuko isilunea eskaintzeko ateratzekoak ziren unibertsitateko agintariak. Hortik aitzinera iskanbila: paisanoz jantzitako polizien bulkaldiak, kolpeak, atxiloketak, irainak, oihuak... tebibistan aditzerik ez bazen ere, beraien zaunkak zein ziren apustu egiten nuke: *Ettarras, terroristas, putos vascos...* Hori baino okerragoa bota omen zien Antonio Perez Prados Unibertsitateko errektoreak: "Cobardes". Unibertsitatean barna jauntxo bere kortijoan bezala, zerbitzari eta txakurrez inguratua zebilen señoritoa, lasai-demonio, eta kortijoaren atera agertu zaizkion eskaleei kakati deitu... Hori duk hori, balentria alajaina!

Biharamunean, unibertsitatean euskara eskatzen zuen ikasle taldea, euskal pre-soen eskubideen aldeko gizatxar multzoa bihurtu zuen señoritoaren prentsak, eta noski, polizi ausartak sasiatar kakatien aurka kargatu behar izan zuen. Kurioso da *Diario de Navarra* euskararekin zerikusia duen oro EH, Jarrai, ETA eta bere inguruarekin (betiko baskitoak, badakizu, gu inbaditu nahian dabilzan horiek) lotzeko duen abilezia. Ez ote dute inor erredakzioak pankartak zioena gaztelerara itzultzeko adinako euskara mailarekin. Hor ere apustu egiten nuke, ezetz noski.

Kontuak kontu, afera larria da, ez baita normala euskara modu baketsuan aldarrikatzen duen talde batek honelako neurri kanpoko erantzuna jasotzea (ezta pre-soen aldeko aldarrikapena egiten balute ere, noski). Ez da normala euskarak Nafarroako Unibertsitate Publikoan (baita EHUn ere, baina hori bertze kontu bat da) duen estatusa. Hutsaren parekoa dela erranen nuke.

Halere, gaitzerdi opusen unibertsitatean gertatu ez zela afera. Bertzenaz, irain, kolpe eta atxiloketez gain, eskumikatzea ere hurbil izanen zuten euskararen aldeko ikasle-eskaleek.

### KONTZERTUAK

- ▀ **Zizur Nagusia:** Gaur, 22:00etan, Berri Txarrak, El Corazon del Sapo, Etsaiak eta MCD izanen dira frontoi estalian.
- ▀ **Iruñea:** Gaur, 00:30etan, Mundiñano Anaiek kontzertua eskainiko dute San Fermin Peñan.
- ▀ **Bakaiku:** Su Ta Gar taldeak pilotalekuan joko du, gaur, 22:30etan.
- ▀ **Altsasu:** Bihar, 23:00etan, Kepa Junkerak kontzertua eskainiko du pilotalekuan, Bierrik kultur elkarteak antolatuta.
- ▀ **Ezpoleta:** Su Ta Gar taldeak merkatuan joko du, bihar.
- ▀ **Mutiloagoliti:** Asteazkenean, Javier Arrillagak emakume izena duten abestiak kantatuko ditu, kultur etxeko auditoriumean, 18:00etan.

### BERTSOLARIAK

- ▀ **Bera:** Larunbatean, 22:00etatik aurrera, Unai Agirre, Jon Maia, Manolo Arozena, Sebastian Lizaso eta Fredi Paia bertsolariak izanen dira kultur etxean. Jon Abril gaitzaille lanetan ariko da.

### HITZALDIAK

- ▀ **Atarrabia:** Astelehenean Emakumeekin munduak aitzina egiten du izeneko hitzaldia emanen du Silvia Fernandez andrearekin, 17:00etan, udaltxeko erabilera anitzeko aretoan.
- ▀ **Burlata:** Asteartean Emakumea: emaztea, ama, alaba eta langilea... ezinezko misioa? izeneko hitzaldia emanen du Paloma Perez Solero andrearekin, 19:30etan, Musika Eskolan.
- ▀ **Iruñea:** Asteartean emakumeen Iruñearen inguruan mintzatuko da Ana Diez de Ure, Zaldiko Maldiko elkartearekin, 20:00etan.
- ▀ **Burlata:** Ostegunean,

19:30etatik aurrera, Musika Eskolan mahai-ingurua izanen da UGT, CCOO, ELA eta LAB sindikatuak ordezkariekin. Gaia, emakumeak jasaten duen bazterketa laborala.

### ANTZERKIA

- ▀ **Iruñea:** Astelehenean ostiralean, Aitor Txarterinaren *Oilarra eta gizona* haurrentzako lana taularatuko dute, 18:30etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.
- ▀ **Bera:** Igandean, La Patro teatro taldeak *Lección de orgasmo 2* antzezlan eskainiko du, arratsaldeko zazpitan, kultur etxean.

### ERAKUSKETAK

- ▀ **Bera:** Bihartik asteazkena arte, emakumeek eginiko eskulanean erakusketa ikus daiteke kultur etxean, arratsaldeko 6etatik 8etara, eta larunbat eta igandeetan goizeko 11etatik 13etara.
- ▀ **Atarrabia:** Astelehenean hilaren 17 arte *Mujeres construyendo futuro: La India* izen-

buruko erakusketa dago kultur etxean.

- ▀ **Burlata:** Asteazkenean hilaren 19 arte, herriko emakume pintoreen erakusketa ikusgai izanen da kultur aretoan.

### BESTELAKOAK

- ▀ **Atarrabia:** Emakumearen eguna dela eta, asteazkenean 16:00 aldera karrika nagusira joaten den edonork *Berdintasuna geldiezina* da izeneko hormirudia margotu ahal izanen du.

JOXE LACALLE



### Erre dute, erre dute

Astelehenean, Maria Trapo eta "desiragaitzak diren gauzak edo pertsonaia" erreko dituzte Iruñeko Nabarrerria plazan. Irudiko pertsonaia aspaldi erre zuten. Herriko Etxeko burua izan zela diote. Zaila da sinestea. Halako pertsonaia nagusi batek leku nabarmena izan beharko luke gure memorian. Honeamakin hartu, eta bere aitzinean paratzen zituzten barraka guziekin bukatzeko gai zen. Ez zuen Agur Jauna-rik dantzatu, baina liburuak oporretan aspertzen direnek soilik irakurtzen dituztela erran zuen. Udaletxea utzi eta gure amesgaiztoen mundua abandonatu zuen. Kargudun publikoa da oraindik ere, baina nabarmentzeko gogo handirik ez duela dirudi. Sinesgabeek sinesten hasi beharko dute. Inauterietako su garbitzaileak haren irudia erre zuen gure memorian.